

VI.-PIZTIAK ETA ABEREA: ITXAS-PIZTI AUNDIAK

Itxasoko baleak berba egingo ba'lebe gauza arrigarrak esango legiskuez.

Balea maltzurra da. Berba egingo ba'leu esango leuskigu: "Non dagoz arrain lez artzen ninduen aldi areik? Lenengo ni arrapatzero ona etorten ziranak Bizkai'ko euskaldunak ziran. Gero lagunak aurkitu ebezan. Ikusgarriak ziran bale-ontzi areik, oialak zabaldua, Ternuara bidean, ekaitzari gogor egiten, arik eta batek dei egin arte: "Balea agiri da!"

Orduan txalupak uretara botaten ebezan, ordu osoak nire atzetik ibiltzen ziran eta arpoilariak trebeak izan arren nik sarritan onik urteten neban. Gaur ontzidi osoa ibiltzen da nire atzetik kañoiakaz, eta radarragaz ikusten nabe urpean nagonean be. Gaur bale begiztatua, bale arrapatua da. Gero ontzian bertan zatituten nabe. Ez da gauza erreza ogeta amar metroko arraiña zatitzea.

Berreun metro urperatuko naz eta or ez nabe arrapatuko. Orretarako neure barruan 4m3 aize gorde neikez eta algak dira nire janari.

Iparraldea itzi eta toki epelago batera joan bear dot, bidean ur-gaiñeko arrain txikiak jango dodaz. Gaiñera olako arrain txiki asko bear dot neure umei jaten emeteko. Nire esneak egunero 90 kilo koipe kentzen daustaz. Ori dana lortzeko lan egin bear izaten dot eta orrelan lortzen dot itxasoan diran kumerik ederrenak eukitea. Oneik jaioten diranean 7 m. luze eta tone bi pisu dauke.

Bidean gure lengusua dan katxalotea aurkituko dogu. Katxalotea burrukalari gogorra da eta itxas-ontzi osoa txikitu leike agiñakaz. Arek ortzak daukaz, nik ostera bizarrak baiño ez.

Atlantik itxasora sartzen ba'naz an topo egiongo dot mazopa'gaz. Au ekaitza danean ur-azalean jauzika ikusten da eta arrantxuak iruntziten ona da.

Egoaldeko itxas-erdian ikusiko dogu bidean doala itxas-txalen taldea. Oneik ez dira nire sendikoak, lurrean be ibiltzen dira-ta. Neu be orain milloiak urteak dirala lurrean ibiltzen nintzala diño, baiña ni ez naz oroitzen.

Itxas-txalen kumeak politak dira, maitekorak, kolorezko begiak, baiña euren gurasoak ur-gaiñean denpora geiegi galtzen dabe jolasten

Iru milla kilotik gora dauke itxas.elefanteak eta burrukalari onak dira.

Itxas-beiak be antzera jokutzen dau eta urriñetik entzuten jako orroaka dagoanean. Itxas-beiaren agiñak marfil ederra dauke eta eiztari marfil-zaleak erasoten dautsoe.

Arrain-idi ta dugoak isilkorrak dira. Itxas.ertzeko bedartzan jaten dabe, baiña baldarrak dira, errez izten dabe euren burua etsaiaren esku.

Agur! Neure umeakana joan bear dot!" Orrelan berba egingo leuke baleak, berba egin al ba'leu.

OLAZAR' tar Martin'ek moldatua.

